



**APAREJADOREA BITARTEKO FUNTZIONARIO GISA HAUTATZEKO PROZESUA
EZAGUTZA FROGA- AHOZKO ZATIA (2019-XI-07 // 10:00 tik aurrera)**

LEHEN ATALA(I): DERRIGORREZKOA

Brigadaren antolamendua. Aipatu eta garatu brigadaren antolamendu egokia bermatzeko erabili beharreko trebetasunak, jarrerak, dohaiak, abildadeak eta tresnak, arlo ezberdinetan.

BIGARREN ATALA (II): TXANDAKAKO GALDERA OROKORRAK

II.01.-GALDERA : Euskadiko 2/ 2006 lurzoru eta hirigintza legea.

01.1.- Lurzoru sailkapenaren arabera, zein mota ezberdinduko zenituzke? Izendatu eta definitu bakoitza.

01.2.- Lurzoru mota bakoitzaren barruan kategoriarik ezberdinduko zenuke? Hala bada, izendatu eta definitu itzazu.

01.3.- Eremu edo area bat hiri lurzoru gisa sailkatua izan dadin, zein ezaugarri edo baldintza bete behar ditu?

II.02.-GALDERA : Irisgarritasuna: 20/1997 legea eta 68 / 2000 Dekretua.

02.1.- Igogailuaren instalazioaren neurriak, eskailera, diametroa etab.

02.2.- Urbanizazio gunetan, espazio zein parke edo plaza publikotan, bideetako edo espaloietako aldapetan, arranpitan etab... zein portzentaiak dira onargarriak.

02.3.- Nola identifikatuko zenituzke gabeziak irisgarritasun ikuspegitik espazio publikotan?
Zeintzuk lirateke deigarrienak zure ikuspegitik?

II.03.- GALDERA: Hondakin kudeaketa: 112/ 2012 Dekretua

03.1.- Obra handietan: nola gauzatu ohi da?

03.2.- Norena da erantzunkizuna? Nork gauzatu behar du?

03.3.- Zerbait (agiriren bat) eskatu behar al da? Zer edo zein motakoa? Noiz edo zein unetan edo zein izapiderekin batera?

03.4.- Baimendutako kudeatzailea: definitu ezazu eta zein zeregin du?



APAREJADOREA BITARTEKO FUNTZIONARIO GISA HAUTATZEKO PROZESUA
EZAGUTZA FROGA- AHOZKO ZATIA (2019-XI-07 // 10:00 tik aurrera)

II.04.- GALDERA: Ikuskizun publiko eta aisialdiko jardueren 10/2015 legea eta 17/2019 Dekretua

04.1.-Zein egoera edo kasuetan da derrigorrezkoa eta loteslea Eusko Jaurlaritzaren txostena, ikuskizun publikoen kasuan, udalak jarduera sailkatuaren lizentzia ematerakoan?

04.2.-Ikuskizun publikoen kasuan, jardueraren aurretiazko berri emate edo komunikazioan, eta baita behin behineko instalazioen kasuan ere, establezimendu edo jardueraren titularrak bi agiri gehigarri ekarri behar ditu. Zeintzuk diren esango al zenuke?

04.3.-Ikuskizun publikoen, aisialdiko jardueren eta establezimendu publikoen katalogo bat bada. Azken bertsioa zein arauetan jaso den baduzu esaterik? Bi multzo ezberdin daitezke, beraien arteko ezberdintasuna esaterik? Eta horren arabera, ondorengo hauek non sartuko zenituzke: Zirkoa, sokamuturra, txosnak//frontoia, festetako barrakak, olentzeroren etorrera// gazteen lokalak, lasterketa bat, auditorioa.

HIRUGARREN ATALA (III): TXANDAKAKO GALDERA ESPEZIFIKOAK

III.01.-GALDERA: Euskadiko 3/2015 etxebizitza legeak eraikinen kontserbazio obligazioa eta eraikitako ondareari balioa ematea jaso du.

01.1.-Nori dagokio betebeharrak hori?

01.2.-Zein elementu fisikori eragiten die?

01.3.-Zein lau baldintza mantendu edo zaindu behar dira?

01.4.-Zertan datza zehazki betebeharrak edo zer egin behar du behartua dagoenak?

01.5.-Helburuak ?

01.6.-Ikuskaritza zein erakunderi dagokio?

III.02.-GALDERA: Euskadiko 3/2015 etxebizitza legea. "Gehiegi okupatutako etxebizitza" kontzeptua definitu du (Vivienda sobre ocupada).

02.1.-Lehenik, definizioa emango al zenuke?

02.2.-Bigarrenik, ratioak aipa ditzakezu azaleraren eta pertsona kopuruaren arabera